

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Funtsezko elkarteekin itunak egitea oso interesgarria izango da, hainbat aukera ematen dituelako, hala nola: negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko, baliabideak eskuratzeko, etab...

Gure negozioak funtzionatzea ahalbidetzen duten **hornitzaile- eta bazkide-sareak** osatuko ditugu. Besteak beste, erosle eta hornitzaileen arteko harremanak ezarriz edo materialen eskuragarritasuna bermatzeko elkarte aliantza bat sortuz. Aliantza mota honen bitartez, jarduera aurrera eramateko beharrezkoak ditugun baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortuko dugu.



Hornitzaile sareari dagokionean, barazkiak eta frutak gertuko baserritar batzuei erosiko dizkiegu, baita bertako nekazari eta abeltzain ezberdinekin egingo ditugu ere. Negozioak eta beste zenbait lehengaien horniketa handizkako enprekin egingo dugu (Makro). Enbalaia isotermikoak izango dira, eta kantitate handiak erosi beharko ditugu. Bezeroek enbalaia bueltan ekartzea izango litzateke hobereena gure gastuak murrizteko, deskontu baten ordezkari (diru-irurrietan hobeto azaltzen da).



Gure enpresa **bost pertsona** osatuko dute. Esan bezala, pertsona bakoitza arlo batean egongo zen. Sukaldean bi pertsona egongo dira, finantzak pertsona bat eramango ditu, erosketak beste bat

egingo ditu, baita enbalaia eraman, eta azkenik beste batek bezeroekin zuzeneko salmentan arituko da, dendan bertan.

Bazkide sareari dagokionez, gutako bakoitzak lan rol bat beteko du. Modu honetan bakoitzak duen abilezia arabera den antolatuko gara: Julen eta Adriana sukaldean egingo dute lan, Hector apal betetzaileria gisa egingo du lan, Maria mostradorean egingo du lan, eta azkenik, Naroa kontuekin eta finantzekin egingo du lan. (Denboran zehar lan-rolak trukatu ditugu taldekideen artean)